



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura eta Turismo Departamentua
Departamento de Cultura y Turismo

OHITUREN ALDE



Gure kultur ondarea gorde eta zainduko bada, ezinbestekoa da herritarrek bere Herriaren oinordekotza historikoa errespetatzen jakitea. Erakusketa etnografiko hau eta honekin batera herri honetan egiten ari diren gainerako lanak, Gipuzkoa osoan zehar herritarrek gure ondareaz jabetzeko bultzatzen ari garen programa baten atal garrantzitsua dira. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Turismo Departamentuak, honelako lanen bitartez, jendearen interesa eta gogoa piztu nahi ditu, agian betidanik aldamenean izan ditugulako edo, berez duten balioa ematen ez zaien kulturagai materialak berreskuratu eta jendaurrean jarri. Jakingo al dugu horiek estimatzen!

M. Jesús Aranburu Orbegozo

Kultura eta Turismo Departamentuko
Foru Diputatua



A S T E A S U
Maiatzak 9- Ekainak 6
Pilotalekuan
Goizeko 9etatik 11untzeko 9etara
EGILEA: ARANZADI ZIENTZI ELKARTEA
LAGUNTZAILEA: ASTEASUKO UDALA

Asteasuko Udalak, bere Kultura Batzordeak bultzatuta **baserriko tresna zaharren erakusketa** handi bat prestatzeko desafioa jarri zion bere buruari. Horretarako duela zenbait hilabete batzorde honek ekin zion lanari.

Ekintza berezi hau burutzeko herritar guztien parte hartzea, ahal izan duten neurrian, ezinbestekoa izan da. Herriko gazteengandik hasita, baserriz baserri ibiliz, tresnen bilatze eta fitxatzeak, baserritar guztienganaino; ganbara, etxeordio eta ikuluetan gordetako tresnak azaltzeko hartu duten pazientziagatik eta erakusketarako utzi eta eskeini dituzten piezengatik. Luze samar litzateke bere borondatez lan egin duten guztiak aipatzea. Hala ere, ezin ahaztu antolaketa honetan parte garrantzitsu bat izan duten Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailean buru den Maria Jesus Aranburu anderea eta Arantzadi Zientzi Elkarteke Etnografi Saileko Fermin Leizaola Jauna eta bere pertsonal ekipoa. Asteasuko Udalaren izenean eskerrik beroenak proiektu hau aurrera eramaten lagundu duten guztiei. Aurrerantzean ere proiektu berriei ekiteko gure inguruan izango direnen itxaropenean gaude. Baita ere **ongi etorriak** izan daitezela Asteasuko herrira inaguraketara etorri behar duten guztiak eta ondorengo egunetan erakusketako bisitariak.

Asintxio Iturbe
Asteasuko Alkatea

DISEÑO: LOPEZ & BILBAO

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Turismo Departamentuak aldi batezko erakusketen ziklo bat sortu zuen 1992an, gure herrietan gorderik dagoen eta interes etnografikoa duen ondare higigarria guztion ikusgai

jartzeko. Proposamen hori baieztatu erantzuna eman ziona Asteasuko Udalak eta Aldundiak Aranzadi Zientzi Elkarteko Etnografia Sailaren lankidetzaz hitzartu zuen, proiektu burutzearen ardura emanez.

Asteasuko biztanlearen bizimoduan, nekazaritzak eta abelazkuntzak gizaldiz-gizaldi izan duen garrantzia ikusirik, bidezkoa iruditu zaigu, herriko pilotalekuan aldi baterako erakusketa bat jartzea, bertan ikusgai, herriko baserrietako tresneria, altzariak eta nekazaritzan erabiltzen ziren lanabesak jarritz.

Interes handikoa zela iruditu zitzaigun, gai honetan Asteasuko gazteak izan zitezten "in situ" gauza hauek ikus zitzatenak, horrela kontura zitezten berauek duten garrantzi kulturalaz.

Fitxak nola bete eta argazkiak nola atera edo marrazkiak nola egin erakusteko era praktikoa azaldu zitzaizkien, sarritan denok bilduz.

Denboraldi bat pasa eta gero, asteasuar gazteek bostehun fitxa inguru eginda zituzten, jarraian fitxa hauek sailkatu behar izan zirelarik, erakusketan agertzen diren bezala.

Benetan goraiatzekoa da, eta beste batzuentzat enenplu izan daiteke, 1500 biztanle baino gutxiagoko herri bat, erakusketa hau aurrera eramanez eta indartzeko gai izan dela.

Fitxak sailkatu ondoren, eta baserri bakoitzean utzitako gauzak bildu ondoren, orotara 1300 aletik gora osatu ditugu. Hauek garbitu eta siglatuak izan dira errazago ezagutu ahal izateko.

Gure eskerrik onena, gauza hauek denak utzi dituzten asteasuar guztiei, Julen Unanue zinegotziari, Miguel M^a Izagirrerri eta gazte eta laguntzaile guztiei, egitasmo honetan gauzak biltzen eta garbitzen lana gogor egin dutelako.

Aranzadi Zientzi Elkarteko Lan Taldea:
Fermin Leizaola, koordinatzaile.
Josu Tellabide.
Juan Antonio Lejarza.

Aldi bateko erakusketa honek 1000 pieza baino gehiago jasotzen ditu, hauek hautaturikoen artean aukeratuak izan dira. Erakusgaiak hobeto irakurri, ulertu eta jarraitzeko, interesgarria eta praktikoa iruditu zaigu hauek lau sail desberdinetan banatzea.

Baserriko bizitzaren hornidura

- Sukaldea eta tresnak: ALMAIZAK, LARATZAK, ELTZEAK, SU-BURNIAK, PERTZAK, BURRUNTZALIAK, KAFE ERROTAK, TXERRI- HILTZEKO GANTXOA, eta abar.

- Argia egiteko sistemak: KRISEILUAK, FAROLA, KANDELEREKOAK, KINKEAK, KARBUROAK, eta abar.

- Pisuak eta neurriak: PISUAK, ERROMANAK, GALTZAIRUAK, LAKARIA, eta abar.

- Altzari tradizionalak: SIESKAK, MAHAIKAK, AULKIARIK, SILLA, KUTXAK, OHEAK, TAKA-TAKA, eta abar.

- Osasunketa eta garbitasuna: ORINALAK, TXARROAK, JOFAINAK, LABABOAK, LABATIBAK, eta abar.

Nekazaritza ekoizketarako teknikak

- Lur prestaketa hazi, ereite eta landaketarako esku tresnak: JORRAIA, ATXURRA, SOKOR-MAZOA, eta abar.

- Eskuz goldatzeko tresnak eta animalia trakziozkoak: LAIAK, NABARRAK, GOLDEAK, KARRAMARROA, NAPAR-AREA, ALPERRAK, AREAK, BESABEA, LAUHORTZAK, ESIKAK, NAPAR-GOLDEA, eta abar.

- Inausi eta Uzta bilketarako erabiltzen diren tresnak: AIOTZAK, ITAIKAK, SEGAK, OTESEGAK, SEGAMOTZA, MATXETEAK, ARMAZDIZKO ZERKAK, ESKU-ZERRAK, ARPANAK, TRONTZAK, SEGAPOTUAK, SEGARRIAK,

TXINGORAK, SEGA PIKATZEKO MAILUA, eta abar.

- Uzta bildu eta haziak garbitzeko tresneria: SARDEAK, ESKUBAREAK, GALBAIAK, AIZE ERROTAK eta abar.

- Abeltzantza eta ertzantzarako tresnak: PERRAK, IDI PERRAK, MAKILAK, ZINTZARRIAK, DUNBAK, UZTAIAK, MALATXAK, ZUMITZAK, MARMITAK, PRENTSAK, eta abar.

Garraio eta karreorako sistemak

- Eskuzko karreoa, bizkarrean edo buru gainean: ESKUSASKI, LEPASASKI, BURUSASKI, BURUTEAK, ASTO-SESTOAK, KAKUAK, SESTERA, eta abar.

- Arrastakako garraioa: LERAK.

- Errotazko garraioa: GURDIAK, KARROAK, KARRETILAK, TRONKO GURDIAK, eta abar.

- Trakzio sistema eta eransgailuak: UZTARRIAK, UZTARRI BAKARRAK, KABILAK, KURTEREAK, PERTIKAK, TIMOIAK, KOPETEKOAK, EREKAK, eta abar.

Bilketa eta ehiza tradizionala

- Zepo eta tranpak: AZARI ZEPOAK, ARRATOI ZEPOA, XAGUTERAK, AZARI KAJAK.

- Sesto eta uzta bilketarako gauzak: SESTERA eta KOPAK, SASKIAK, KIZKIA, eta abar.

Sagardoa

- UPELAK, BARRIKAK, GURDI-BARRIKAK, KUELAK, KIZKIAK, SESTOAK, URIAK, SAGARDO INBUTUAK, TRUMONAK, KANILAK, PISOIAK.

Pieza hauetariko gehienak, gure baserrietan eta artisauek eginak dira, eta gaur egun autarkian eta bere buruaz baliatu dira BASERRI izeneko ustiakuntza honek. Jakina da herri baten originaltasunak ez datzala honek. Kultur materialeko elementu berri bat goitik behera egin eta asmatzean, baizik eta objektu hauei soslai edo ikutu berezi bat ematean, diezaien norik berea bezala errekonozituz.

Beraz, HERRI BATEN USADIOZKO ONDAREAREN KONTSERBAZIOAN EDUKI BEHARREKO LEHEN HELBURUA, KONPLEJU, KALKO, IMITAZIO ETA UNIFORMISMOA GAINDITU ETA GERO, ONDASUN HIGIGARRI ETA HIGIEZINEN PRESERBAZIO XEDATUA ETA SENDOA DA, HIZKUNTZAREKIN BATERA ETA FOLKLOREAREKIN BATERA, HERRI BATEN BENETAKO NORTASUNAREN SEÑALEA IZAN DADIN.

Azkenik, objektu horiek denak - gaur egun erabiltzen ez direnak - jende guztia ezagutzera emateaz gainera, baserri eta nekazal mundutik gaur aldendua dagoen jendeak, orain urte gutxirarte Euskal Herriko ohizko bizitza ulertzea eta estimatzea nahi da erakusketaren bitartez.

